

Komunikatua martxoaren 30an

Etxeko eta zaintzako langileen nazioarteko eguna

Gaur, martxoak 30ean, Etxeko eta zaintzako langileen nazioarteko egunean, gure ahotsa indarrez eta erabakitazunez altxatzen dugu gure eskubidea eta duintasuna aldarrikatzeko.

Gure lanak bizitzari eusten dio. Adineko pertsonak pertsonak eta haurrak zaintzen ditugu, etxeak garbitzen ditugu, eta milaka familiak bere egunerokotasunarekin jarraitu ahal izatea ahalbidetzen dugu. Hala ere, nahiz eta gure lana funtsezkoa izan, sektore ikustezin eta prekarizatuenetako bat izaten jarraitzen dugu.

Guk, kolektibo horretakoak garenok, askotan etxeko eta zaintzako langileen kontratuan sarturik ez dauden lanak egiten ditugu. Hala ere, egiten ditugu, dagokion bezala aitortuak izan gabe eta gehiegitan soldata duinik jaso gabe.

Gure ustez, XXI mendean ezin dugu ez bazterturik ez ikusteziniak izaten jarraitu.

Agian ez dira konturatzen gure lanik gabe egungo gizartea gelditu egingo litzatekeela?

Zaintzak bizitza eusten dio eta gainerako guztiak funzionatzea ahalbidetzen du.

Horregatik esaten dugu ozen eta argi: nahikoa da diskriminazioarekin!

Lan baldintzak bidezkoak, eskubide argiak eta benetako babesa bermatuko dituen hitzarmen kolektiboa eskatzen dugu. Guttxienezko soldata propioa ere eskatzen dugu, zaintzaren balio soziala eta ekonomikoa aitortzen duena eta duintasunez bizitzeko aukera ematen diguna.

Gizartearentzat beharrezkoak gara eta gure artean ere behar dugu elkar. Horrela bakarrik egin ahal izango dugu aurrera errealitate justu baterantz, non gure eskubideak eta zaintza-beharrek benetan bermatuta egongo diren.

Horretarako beharrezkoa da gobernuen borontate politikoa eta baita ere eragile sindikalen erantzunkizuna guretzat hitzarmen kolektibo bat lortzeko.

Errealitatea argia delako, gu gabe bizitza ez da mantentzen.

THYCNA , Trabajadoras de Hogar y Cuidados de Navarra
Empleados y empleadas del Hogar de Navarra

Trabajadoras del Hoagr y Cuidados “ Juntas nos cuidamos”